



DONOSTIAKO UDALAREN EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO IV. PLANA

JARRAIPEN TXOSTENA 2022



DONOSTIAKO UDALAREN EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO IV. PLANA

JARRAIPEN TXOSTENA 2022



1. SARRERA	3
2. JORRATUTAKO NEURRIAK	4
• GOBERNU ONA	4
• EMAKUMEEN AHALDUNTZEA	12
• INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK	18
• EKONOMIAK ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEKO	24
• ANALISI GLOBALA	27
3. GAKOAK-MUGARRIAK: ARRISKUAK ETA AUKERAK	29

1. SARRERA

2020ko urriaren 20an Donostiako Udalaren Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako IV. Plana onartu zen Tokiko Gobernu-Batzarrean. 2022-2024 eperako indarraldia du Planak, eta 4 esku-hartze ardatz eta 8 proiektu-emaitzetan dago antolatuta. Ardatz bakoitzean aurreko planetan bultzatutako neurriak jaso dira baita ere, hau da, Udalaren dinamikan txertatuta daudenak eta bultzatzen zein lantzen jarraitu behar direnak.

ESKU HARTZE ARDATZAK	PROIEKTU-EMAITZAK	+ TXERTATUTAKO NEURRIAK
GOBERNU ONA	1. AURREKONTU ETA KUDEAKETA PLAN FEMINISTAK 2. IKUSPEGI INTERSEKZIONALA 3. PLANAREN IRAUNKORTASUNA	
EMAKUMEEN AHALDUNTZEA	4. EMAKUMEEN ETXE HANDI, ANITZ ETA KOORDINATUAGOA 5. DONOSTIA, FEMINISMOAREN ALDEKO HIRIA	
INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK	6. ERABATEKO PREBENTZIOA 7. ERREPARAZIO INTEGRALA	
EKONOMIAK ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEKO	8. KALITATEZKO ZAINTZAK ETA ENPLEGUAK	

Planak, proiektu horietako bakoitzari lotutako helburu-azpiproiektuak eta neurriak zehazten ditu. Urtero, urte horretan landuko diren neurriak prestatzen dira, eta horiek garatzeko ekintza zehatzak finkatzen dira.

2020ko urritik 2021eko abendura Donostiako Udalaren Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako IV. Planaren ezarpenaren jarraipenak agerian utzi zuen ezinezkoa zela Plana behar bezala garatuko zela bermatzea, esleituta zeuden langileak (pertsonek kopurua eta hauen profilak) eta baliabide ekonomikoak aintzat hartuta. Testuinguru hori kontuan izanik, hainbat esku-hartze lehenetsi, zenbait proiektu eta neurri errealitate berria egokiagoa izan arte atzeratu, eta beste batzuen esku-hartze maila murriztu da. Hurrengo orrialdeetan neurri horiek AN eta MN marka daramate, atzeratu/murriztu diren neurriak direla ikusarazteko.

Txosten honen helburua IV. Planaren neurrien eta proiektu-emaitzen 2022ko gauzatze-maila aztertzea da.

2. JORRATUTAKO NEURRIAK

Ardatzez ardatz, proiektu-emaizta bakoitzean burututako neurriak jaso dira, eta baita txertatuta dauden neurrien jarraipena ere.

ESKU-HARTZE ARDATZA: GOBERNU ONA

1. PROIEKTU-EMAITZA: AURREKONTU ETA KUDEAKETA PLAN FEMINISTAK

Proiektu honek 11 neurri jasotzen ditu, hiru azpiproiektutan sailkatuta. 2022rako aurreikusita zegoen 7 neurriari heltzea. **5 jorratu dira (%71).**

JARRAIPENA	BERDINTASUNA, ERABAKIAK HARTZEKO ALDAGAI BAT	AURREKONTUEN ANALISIA, GENERO IKUSPEGITIK	BERDINTASUNEAN OINARRITUTAKO GIZA BALIABIDEEN POLITIKA
AURREIKUSIA ETA JORRATUA	1.4. Udaleko Planetan berdintasun ikuspegia txertatzea. (MN)	1.6. Aurrekontu programa gehiago aztertzea, genero ikuspegitik. 1.7. Partida moreen gauzatzearen kontrola hobetzea. 1.10. Aurrekontu-programak aztertzean hautemandako desberdinkeriak gainditzeko neurriak proposatzea.	
AURREIKUSIA ETA JORRATU GABEA	1.3. Aurrekontu parte-hartzaileetan berdintasuna indartzea. (MN) 1.5. Kontratazio publikoan sartutako berdintasun klausulen betetze mailaren jarraipena egitea. (MN)	1.8. Kudeaketa-planetan jasotako berdintasunerako ekintzak aurrekontuan sartu diren aztertzea.	
2022RAKO PLANIFIKATU GABEA BAINA JORRATUA			1.11. Berdintasunerako barne plan berria garatzea. (MN)
2022RAKO PLANIFIKATU GABEA	1.1. Proposamen metodologikoa egin udal arlo, enpresa eta erakundeek dituzten berdintasunerako ekintza estrategikoenak kudeaketa planean nola sartu lantzeko. (AN) 1.2. Zerbitzu-gutunetan genero-ikuspegia txertatzea. (AN)	1.9. Aurrekontuko diru-sarrerak aztertzen hastea. (AN)	

Taula honetan jorratutako neurri bakoitzerako garatutako ekintzak eta jarraipen-adierazle nagusiak jasotzen dira.

JORRATUTAKO NEURRIAK	JORRATUTAKO EKINTZAK/DESKRIBAPENA	PARTE HARTU DUTENAK	ADIERAZLEAK
1.2. Zerbitzu-gutunetan genero-ikuspegia txertatzea.	<ul style="list-style-type: none"> Zerbitzu-gutun berriak egitean kontuan hartu beharreko genero-gakoak identifikatzeko hausnarketa hasi da. 	<ul style="list-style-type: none"> Lehendakaritza 	<ul style="list-style-type: none"> Bilera kopurua: 1
1.4. Udaleko Planetan berdintasun ikuspegia txertatzea.	<ul style="list-style-type: none"> Gazteriako plan estrategikoan genero ikuspegia bermatzeko saioetan, berdintasun teknikariek parte hartu dute. HAPOn genero ikuspegia zeharka txertatu da. 	<ul style="list-style-type: none"> Berdintasuna Gazteria Hirigintza Partaidetza 	<ul style="list-style-type: none"> Berdintasunerako Unitateak parte hartzen duen udal planen kopurua: 2
1.6. Aurrekontu programa gehiago aztertzea, genero ikuspegitik.	<ul style="list-style-type: none"> 2023ko aurrekontuetako proposamenean 4 programa gehiago aztertu dira (euskara, zahar etxeak, osasunaren sustapena eta osasun publikoa eta animalien ongizatea). 	<ul style="list-style-type: none"> Aurrekontuak Berdintasuna 	<ul style="list-style-type: none"> 4 programa gehiago aztertu dira. 4 lan-bilera Berdintasuna-Aurrekontuak
1.7. Partida moreen gauzatzearen kontrola hobetzea.	<ul style="list-style-type: none"> Teknikari bakoitza bere solaskideekin harremanetan egon da urte osoan zehar jarraipena egiteko. 	<ul style="list-style-type: none"> Aurrekontuak Berdintasuna 	<ul style="list-style-type: none"> Kontusail espezifikoetan egindako gastuaren betetze maila: %90,48
1.10. Aurrekontu-programak azertzean hautemandako desberdinkeriak gainditzeko neurriak proposatzea.	<ul style="list-style-type: none"> Txostenetan (proposamenean eta exekuziokoa) gomendioak egin dira. 	<ul style="list-style-type: none"> Aurrekontuak Berdintasuna 	<ul style="list-style-type: none"> 38 gomendio egin dira

JORRATUTAKO NEURRIAK	JORRATUTAKO EKINTZAK/DESKRIBAPENA	PARTE HARTU DUTENAK	ADIERAZLEAK
1.11. Berdintasunerako barne plan berria garatzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Udaleko langileen egonkortze prozesuaren generoaren eraginaren txostena egitea. • Sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko protokoloaren eguneraketaren difusioa egitea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Pertsonak • Berdintasuna • Kirola • Suhiltzaileak • Etxegintza • Kultura • Musika eta Dantza eskola • Donostiatik 	<ul style="list-style-type: none"> • Genero-txostena: guztira 7 • Protokoloa udaleko sail guztietan banatu da.

1.5. neurriari dagokionez, jarraipena egin ez den arren, kontratuetan berdintasun klausulak txertatzeko ikastaroa egin da udal langileekin eta jarraipena nola egin hausnartzen ari dira.

2. PROIEKTU-EMAITZA: IKUSPEGI INTERSEKZIONALA

Adierazi den bezala, hau da 2020ko eta 2021eko jarraipena egitean **atzeratzea erabaki den proiektuetako bat**, baliabide ekonomiko eta pertsonalen egoera kontuan hartuta. Hala ere, 2.4. neurriarekin lotuta dagoen ekintza bat garatu da.

JARRAIPENA	INTERSEKZIONALITATEA DEFINITZEA	EZ-BITARRAREN LAUKIA
2022RAKO PLANIFIKATU GABEA BAINA JORRATUA	2.4. Intersekzionalitatearen garrantzia eta onurak zabaltzea eta zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten langileak trebatzea. (AN)	
2022RAKO PLANIFIKATU GABEA	2.1. Intersekzionalitatearekin lotutako esperientziak identifikatzea. (AN) 2.2. Intersekzionalitateari dagokionez, zein aldagai landuko diren erabakitzea. (AN) 2.3. Martxan dauden zenbait proiektu identifikatzea eta intersekzionalitatearen ikuspegia txertatzea. (AN) 2.5. IV. Plana berrikustea, aldagai hauek kontuan izanda. (AN)	2.6. Zein dokumentu, estatistika eta ikerketetan sartu den identifikatzea. (AN) 2.7. Ez-bitarraren laukia sartzearen ondorioak: onurak, zailtasunak... identifikatzea. (AN) 2.8. Txosten bat egitea irizpide teknikoak luzatuz. (AN)

Jorratutako neurri horretarako, garatutako ekintzak eta jarraipen-adierazle nagusiak jasotzen dira taula honetan.

JORRATUTAKO NEURRIAK	JORRATUTAKO EKINTZAK/DESKRIBAPENA	PARTE HARTU DUTENAK	ADIERAZLEAK
2.4. Intersekzionalitatearen garrantzia eta onurak zabaltzea eta zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten langileak trebatzea.	<ul style="list-style-type: none"> Berdintasun, Euskara eta Kultur Aniztasuneko teknikariak, hizkuntza, berdintasuna eta kultura-aniztasunean elkar ahalduntzeko saioa. 	<ul style="list-style-type: none"> Euskara Berdintasuna Kultura-aniztasuna 	<ul style="list-style-type: none"> Lansai 1 12 emakume eta 4 gizonek parte hartu dute

3. PROIEKTU-EMAITZA: PLANAREN IRAUNKORTASUNA

Proiektu honek 6 neurri jasotzen ditu, hiru azpiproiektutan sailkatuta. 2022rako aurreikusita zegoen 2 neurriari heltzea. **Aurreikusitako 2 neurrietatik 1 jorratu da (%50) eta aurreikusita ez zegoen beste bat.**

JARRAIPENA	BERDINTASUNERAKO EGITURA	ARAUDIA	KOMUNIKAZIOA
AURREIKUSIA ETA JORRATUA	3.4. Udal Enpresa eta erakunde autonomoetan berdintasunerako erreferenteak sortzea.		
AURREIKUSIA ETA JORRATU GABEA	3.3. Berdintasuneko pertsonalaren beharrak diagnostikatzea. Berdintasun Unitatea handitzea eta/edo sailetako berdintasunerako erreferenteak sortzea baloratzea. Horren arabera, lanpostu berriak sortzea.		
2022RAKO PLANIFIKATU GABEA BAINA JORRATUA	3.1. Udalaren organigraman Berdintasun Unitatearen kokapena aztertzea, Berdintasun Unitatearen forma egokiena (Unitatea, Zuzendaritza, Zerbitzua...) erabakitzeko. (AN)		
2022RAKO PLANIFIKATU GABEA	3.2. Egituran, Emakumeen Etxea ikusaraztea. Adibide moduan, "Berdintasuna eta Emakumeen Etxea" zerbitzua/zuzendaritza... (AN)	3.5. Berdintasunerako Ordenantza onartzea. (AN)	3.6. Berdintasun Saileko eta Emakumeen Etxeko komunikazio plana gauzatzeko baliabideak bideratzea. (AN)

Jorratutako neurri horretarako, garatutako ekintzak eta jarraipen-adierazle nagusiak jasotzen dira taula honetan.

JORRATUTAKO NEURRIAK	DESKRIBAPENA	PARTE HARTU DUTENAK	ADIERAZLEAK
3.1. Udalaren organigraman Berdintasun Unitatearen kokapena aztertzea, Berdintasun Unitatearen forma egokiena (Unitatea, Zuzendaritza, Zerbitzua...) erabakitzeko.	<ul style="list-style-type: none"> Berdintasunerako atalburutza propio bat sortu da. Aurretik zegoen lanpostu bat, LPZan sartu da. 	<ul style="list-style-type: none"> Lehendakaritza Pertsonak. 	<ul style="list-style-type: none"> 2 aldaketa
3.4. Udal Enpresa eta erakunde autonomoetan berdintasunerako erreferentea sortzea.	<ul style="list-style-type: none"> Beraien erakundeko Berdintasunerako I. Plana garatzeko, Berdintasun Batzorde bat sortu dute. 	<ul style="list-style-type: none"> Sustapena 	<ul style="list-style-type: none"> Batzordearen osaera: 3 emakume, 1 gizon

GOBERNU ONA: TXERTATUTAKO NEURRIAK

NEURRIA	DESKRIBAPENA	PARTE HARTU DUTENAK	ADIERAZLEAK
1. Kontratazioan, diru-laguntzetan, hitzarmenetan eta beste araudi batzuetan berdintasunerako klausulak txertatzea (...)	<ul style="list-style-type: none"> Formazio bat antolatu da kontratazioko aholkulari juridiko, berdintasun teknikari eta beste arlo batzuetako teknikarientzat. Une honetan, kontratazio zerbitzuarekin solaskidetzat indartzen. 	<ul style="list-style-type: none"> Berdintasuna Kontratazioa 	
	<ul style="list-style-type: none"> 2022an Aisikasi eta Haurrak Udan Mintzajolasean jarduerak bideratzeko kontratuen baldintza administratiboetan txertatu da funtsezko betebeharrak gisa. Aurretik datozen gainerako kontratuetan ere txertatuta dago. Baita dirulaguntza deialdietan ere. 	<ul style="list-style-type: none"> Euskara 	<ul style="list-style-type: none"> Berdintasun klausulak txertatuta dauzkaten kontratuak: 2 (Euskara)
	<ul style="list-style-type: none"> Konkurrente diren dirulaguntzen oinarrietan berdintasun klausulak txertatu dira. <ul style="list-style-type: none"> Lankidetzako dirulaguntzetan, Garapenerako lankidetzat eta Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzan, interes bereziko lerroa da emakumeen ahalduntzea eta genero ekitatea sustatzea. Lankidetzako dirulaguntza zuzenak berdintasun proiektuei: <ul style="list-style-type: none"> Euskal Fonda. <i>Fortalecer cinco instituciones municipales de Alta Verapaz para construir una ciudadanía con equidad y libre de violencias, Alta Verapaz. 2ª fase</i> Euskal Fonda. <i>Fortaleciendo la gobernabilidad y gobernanza local con perspectiva de género en municipios de El Salvador. 3ª fase (3/4)</i> Euskal Fonda. <i>Formación para el emprendimiento de la juventud de Suchitoto, departamento Cuscatlán, El Salvador. Fase I (1/2)</i> 	<ul style="list-style-type: none"> Partaidetzat Giza Eskubideak Lankidetzat Sustapena 	<ul style="list-style-type: none"> Berdintasun klausulak txertatuta dauzkaten dirulaguntzak: konkurrente diren %100 Giza Eskubideen diru-laguntzak: 22 proiektutatik 3 genero dibertsitateari eta emakumei lotuta (Sexune emakumeen elkarte, Eguzki Gladys omenaldia eta; Samurrak aniztasun sustapen elkarte) Garapenerako lankidetzarako dirulaguntzak: onuradunen %67 emakumeak. Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzarako dirulaguntzak: onuradunen %64,6 emakumeak.

GOBERNU ONA: TXERTATUTAKO NEURRIAK

NEURRIA	DESKRIBAPENA	PARTE HARTU DUTENAK	ADIERAZLEAK
(...) Kontratazioan, diru-laguntzetan, hitzarmenetan eta beste araudi batzuetan berdintasunerako klausulak txertatzea	<ul style="list-style-type: none"> Arte eta Giza Eskubideak, Haur eta Gazteen 18 ekitaldia: lehiaketako oinarrietan genero ikuspegia txertatzea eskatzen da 	<ul style="list-style-type: none"> Giza Eskubideak 	
	<ul style="list-style-type: none"> Matrikulazioa irizpide orokor gisa, espezialitate batean sexu bateko ikasleak %30 baino gutxiago badira, %70 plaza eskainiko dira sexu minoritariorako Emakumezko Elektrotxarangarekin hitzarmena sinatu da matrikulazio kanpainarako. 	<ul style="list-style-type: none"> Musika eta dantza eskola 	<ul style="list-style-type: none"> Irakasgai maskulinizatueta 26 emakume sartu dira Irakasgai feminizatueta 34 gizon sartu dira
2. "Udal Aurrekontuen analisia, genero ikuspegitik" txostena egitea.	<ul style="list-style-type: none"> Urtean zehar, Aurrekontuak eta Berdintasunak batera egin dute aurrekontuen analisiaren prozesua eta txostena egin ondoren amaitu da. 2022ko aurrekontu onartuaren analisi-txostena egin da. 	<ul style="list-style-type: none"> Aurrekontuak Berdintasuna 	
3. Generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioak egitea.	<ul style="list-style-type: none"> Arauek eta egonkortze prozesuak garatzen dituzten sailek generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioak egiten dira. Berdintasun sailak egiaztapen-txostenak egin ditu, ekarpenak eginez. Hirigintzako arloan, aholkulari tekniko bat kontratatu da bi lanetarako: egiaztatze txostenak egiteko eta HAPOrako gomendio orokorrak lantzeko. Hirigintza plangintzan genero ikuspegia txertatzeko gida bat egin da. 	<ul style="list-style-type: none"> Berdintasuna Hirigintza 	<ul style="list-style-type: none"> 34 arauen generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioak egin dira
4. Hizkuntzaren erabilera inklusiboa, datu bereiztuak... erabilera bermatzea.	<ul style="list-style-type: none"> Ikerlarien inprimakian ikerkuntzaren hitz – gakoetan 'generoa' edo 'emakumeak' terminoak sartu dira, datuak sexuaren arabera bereiztuak aurkeztu dira eta ikergaiak emakumeen egoeraren historiari buruzko ezagutza handiagoa izaten laguntzen dutenaren inguruko zehazpenak eransteko aukera txertatu da. 	<ul style="list-style-type: none"> Lehendakaritza Mugikortasuna Kristina Enea 	

GOBERNU ONA: TXERTATUTAKO NEURRIAK

NEURRIA	DESKRIBAPENA	PARTE HARTU DUTENAK	ADIERAZLEAK
5. Berdintasunerako prestakuntza jasotzea eta antolatzea Udal Formazio Planean.	<ul style="list-style-type: none"> • Genero klausulak kontratazio publikoan, 3 berdintasun teknikari barne (25 ordu/ 20 emakume eta 7 gizon). 	<ul style="list-style-type: none"> • Berdintasuna 	<ul style="list-style-type: none"> • Udal langileei eskainitako berdintasunaren inguruko ikastaro 1. • 25 ordu • 20 emakume eta 7 gizonen parte hartu dute.
	<ul style="list-style-type: none"> • Gizonduz-eko programarekin gizonen zuzendutako formakuntza egin dute. 	<ul style="list-style-type: none"> • Mugikortasuna 	<ul style="list-style-type: none"> • 12 gizonen parte hartu dute.
	<ul style="list-style-type: none"> • Barne Planaren garatzeko oinarritzko prestakuntza antolatu da langile guztientzat 	<ul style="list-style-type: none"> • Sustapena 	<ul style="list-style-type: none"> • 28 emakume eta 4 gizonen parte hartu dute.
6. "Zeharkakotasunaren lantaldean" parte hartzea. Udaleko zeharkakotasun estrategian lagungarri izatea.	<ul style="list-style-type: none"> • Kudeaketa planean zeharkakoa txertatzeko koordinazioa lan saioa egin da. 	<ul style="list-style-type: none"> • Berdintasuna 	<ul style="list-style-type: none"> • Bilera 1
7. Planaren batzorde teknikoaren kudeaketa.	<ul style="list-style-type: none"> • Berdintasunerako Planaren egoera eta jarraipena lantzeko lan saioak. 	<ul style="list-style-type: none"> • Berdintasuna 	<ul style="list-style-type: none"> • 2 lansaio
8. Berdintasunerako arloen arteko Batzorde Politikoa eta Teknikoaren kudeaketa.	<ul style="list-style-type: none"> • Berdintasunerako Planaren egoera eta jarraipena lantzeko lan saioak. 	<ul style="list-style-type: none"> • Berdintasuna 	<ul style="list-style-type: none"> • Lansaio 1
9. Langileen berdintasun batzordea dinamizatzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Berdintasunerako barne planaren jarraipena egiteko lan saioak. 	<ul style="list-style-type: none"> • Berdintasuna 	<ul style="list-style-type: none"> • Lansaio 1
12. Ikasle eta ikertzaileen elkarrizketei erantzutea berdintasun proiektu eta ikasketetarako.	<ul style="list-style-type: none"> • Berdintasun Unitateko teknikariek ezaugarri hauek jasotzen dituzten eskaera guztiei erantzun diete. 	<ul style="list-style-type: none"> • Berdintasuna 	<ul style="list-style-type: none"> • Berdintasun proiektu eta ikerketak egiten ari diren ikasle eta ikertzaileekin elkarrizketa kopurua: 12
13. Hiritarrak egiten dituzten eskaerak, kexak eta gomendioak erantzun.	<ul style="list-style-type: none"> • Berdintasun Unitateko teknikariek «Herritarren Postontzia» webgunearen bidez iristen diren kontsulta guztiei erantzun diete. 	<ul style="list-style-type: none"> • Berdintasuna 	<ul style="list-style-type: none"> • Erantzundako kexa eta iradokizunak: %100 (6)

ESKU-HARTZE ARDATZA: EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

4. PROIEKTU-EMAITZA: EMAKUMEEN ETXE HANDI, ANITZ ETA KOORDINATUAGOA

Proiektu honek 8 neurri jasotzen ditu, bi azpiproiektutan sailkatuta. 2022rako aurreikusita zegoen 3 neurriri heltzea eta **2 jorratu dira (%67) eta aurreikusita ez zegoen beste bat.**

JARRAIPENA	ESTRATEGIA	ERAGINA
AURREIKUSIA ETA JORRATUA	4.1. Kogestio egitura indartzea. 4.5. Zerbitzu eta baliabideen kudeaketa hobetzea: baliabide gehiago lortzea, datuak jasotzea, memoria, kontratazioak...	
AURREIKUSIA ETA JORRATU GABEA	4.2. Espazio berri eta handia lortzea, espazio-denbora-dukietan irisgarria izango dena.	
2022RAKO PLANIFIKATU GABEA BAINA JORRATUA	4.4. Emakumeen Etxearen datu-basea.	
2022RAKO PLANIFIKATU GABEA	4.3. Udal kudeaketa tresnetan Emakumeen Etxea txertatzea.	4.6. Emakumeen bizitzan Emakumeen Etxeak duen eraginari buruzko ikerketa egitea. (AN) 4.7. Emakumeen Etxean egiten den lanaren balio ekonomikoa aztertzeko ikerketa egitea. (AN) 4.8. Udal langileekin Emakumeen Etxearen erabilera eta deribazioa lantzeko saioak egitea. (AN)

Taula honetan jorratutako neurri bakoitzerako garatutako ekintzak eta jarraipen-adierazle nagusiak jasotzen dira.

JORRATUTAKO NEURRIAK	JORRATUTAKO EKINTZAK/DESKRIBAPENA	PARTE HARTU DUTENAK	ADIERAZLEAK
4.1. Kogestio egitura indartzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Bi hilean behin, Berdintasun Unitatearen eta Emakumeen Etxea Elkartearen artean bilerak antolatzen dira. 	<ul style="list-style-type: none"> • Berdintasuna 	<ul style="list-style-type: none"> • 5 kogestio bilera
4.4. Emakumeen Etxearen datu-basea.	<ul style="list-style-type: none"> • Tresna honen jarraipena eta hobekuntza batzuk egin dira. 	<ul style="list-style-type: none"> • Berdintasuna 	
4.5. Zerbitzu eta baliabideen kudeaketa hobetzea: baliabide gehiago lortzea, datuak jasotzea, memoria, kontratazioak...	<ul style="list-style-type: none"> • Kontratu publikoak egin dira zerbitzu eta taldeentzat , eta oraindik ez dira esleitu. • Euskara saileko lankidetzeta, Emakumeen etxeko erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak bermatzeko: lan saioak formatzaile eta dinamizatzailentzat, jarraibideak zehaztu... 	<ul style="list-style-type: none"> • Berdintasuna • Euskara 	<ul style="list-style-type: none"> • Kudeaketa aldaketa 1 • Euskara saialarekin 5 lansai, 3 eskuorri eta kartel bat

5. PROIEKTU-EMAITZA: DONOSTIA, FEMINISMOAREN ALDEKO HIRIA

Proiektu honek 10 neurri jasotzen ditu, hiru azpiproiektutan sailkatuta. 2022rako **aurreikusita zegoen neurri bati heltzea eta jorratu egin da. Beste bi neurri ere martxan jarri dira**, atzeratzea aurreikusita zegoen bat eta planaren ezarpenean sortatuko beste bat.

JARRAIPENA	NESKA ETA EMAKUME GAZTEENTZAKO PROGRAMAK	EMAKUMEAK, SOLASKIDE	EKIALDEKO BARRUTIKO BERDINTASUNERAKO PLANA EGIN
AURREIKUSIA ETA JORRATUA	5.1. Neska eta emakume gazteentzako kultura, aisialdi, sexualitate eta abarren programak eskaintzea.		
2022RAKO PLANIFIKATU GABEA BAINA JORRATUA		5.3. Berdintasunerako dirulaguntzen oinarriari buruz hausnartzea: publiko objektiboa, puntuazio-irizpideak... (AN)	
PLANAREN EZARPENEAN SORTUTAKO NEURRIA			5.11. Ekialde Barrutiko Planaren ezarpena.
2022RAKO PLANIFIKATU GABEA	5.2. Hezkidetzarako patioak. Ikastetxeetako patioetan Udalak hobekuntzak eta mantenu lanak egiten dituenean, genero ikuspegia txertatzea (beste espazio batzuk sortu: txoko lasaiak, berdeak, baratza, kirol praktika anitzak egitekoak...). (AN)	5.4. Udalaren diru-laguntzen fitxetan jasotako datuak aztertzea. (AN) 5.5. Dirulaguntzen fitxetan jasotako datuak aztertu eta gero, jasotzen diren datuak berrikustea. (AN) 5.6. Emakumeek edo emakume-elkarte nagusiek beste Departamentu batzuek bultzatutako prozesuetan parte har dezaten proposatzea. (AN) 5.7. Udal-kontseiluetako urteko plangintzan genero ikuspegia txertatzea. (AN) 5.8. Emakumeek Udalari aurkeztutako eskaerak aztertzea (kexak, iradokizunak) eta dagozkien departamentuko kudeaketa-planetan sartzea. (AN)	5.9. Ekialde Barrutiko emakume eta gizonen egoeraren diagnostikoa osatzea. 5.10. IV. Planaren egokitzapen bat lantzea.

Taula honetan jorrotutako neurri bakoitzerako garatutako ekintzak eta jarraipen-adierazle nagusiak jasotzen dira.

JORROTUTAKO NEURRIAK	JORROTUTAKO EKINTZAK/DESKRIBAPENA	PARTE HARTU DUTENAK	ADIERAZLEAK
5.1. Neska eta emakume gazteentzako kultura, aisialdi, sexualitate eta abarren programak eskaintzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Kontadores Laborategiak: <ul style="list-style-type: none"> ○ Sexualitatetik harremanak irauliz. ○ GorputzEKIN: gorputzaren inguruko tailerrak 18-30 urte bitarteko emakumeentzat • MARTX UP! Gazte ekintzaileei formazioa genero ikuspegia bermatuta <ul style="list-style-type: none"> ○ Interrup.nation ekofeminismo gaiak 9 haurtxokotan ○ Mimosa: adin tarte zabalerako (18-55 urte bitarte) sexualitatearen inguruko gaien eztabaidak ○ Ni-rekin, gorputza, janaria, irudia, ongizatea Kontadores eszena, Erradikalak giñen ikuskizuna • Inspira steam: LH5-eko nesken artean zientziarako bokazioa sustatzea • Parekide egitasmoa: Ipuin eta estereotipoak (LH6) • Emakumeen Etxean gazteei zuzenduta sexu eta genero aholkularitza, eta neska gazteen taldea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Gazteria • Hezkuntza 	<ul style="list-style-type: none"> • Kontadores Laborategia: 2 proiektu • Martx Up!: 3 proiektu, 11 emakume
5.3. Berdintasunerako dirulaguntzen oinarriari buruz hausnartzea: publiko objektiboa, puntuazio-irizpideak...	<ul style="list-style-type: none"> • Puntuazio-irizpideak aldatu dira. 	<ul style="list-style-type: none"> • Berdintasuna 	
5.11. Ekialde Barrutiko Planaren ezarpena	<ul style="list-style-type: none"> • Jabekuntza Eskola kudeatu • Eskulturak ipini • Plan operatiboa egin eta ebaluatu • Atrilen inaugurazioa 	<ul style="list-style-type: none"> • Ekialde Barrutia • Berdintasuna • Partaidetza 	

EMAKUMEEN AHALDUNTZEA: TXERTATUTAKO NEURRIAK

NEURRIA	DESKRIBAPENA	PARTE HARTU DUTENAK	ADIERAZLEAK
1. Kanpainak garatzea	<ul style="list-style-type: none"> Festetan sexu erasoen aurkako kanpaina gauzatu da. Mugimendu feministarekin koordinazioa egin da. 	<ul style="list-style-type: none"> Berdintasuna Festak 	<ul style="list-style-type: none"> 5 gizarte-eragilek parte hartu dute.
	<ul style="list-style-type: none"> Musika eta Dantza Eskolako matrikulazio kanpaina: emakumezkoak, musika modernoan; gizonezkoak, dantzan. Musika eta Dantza Eskolako Emakume Irakasleen Konboa, ereduak izateko eta datorren ikasturteko matrikulazio kanpainan erabili ahal izateko. Musika eta Dantza Eskola eta Intxaurrendoko Kultur Etxea elkarlanean, martxoaren 5-8 asterako: Saxo hitzaldi/kontzertua eta "Juliette, neska ausarta" Ipuin dantzatua. 	<ul style="list-style-type: none"> Musika eta dantza eskola 	<ul style="list-style-type: none"> 2 kartel 5 emakume irakasle eta abesti propio baten konposaketa.
	<ul style="list-style-type: none"> Goazen Neskak kanpaina: goi mailako emakume kirolariak ikusarazteko. 	<ul style="list-style-type: none"> Donostia Kirola 	
	<ul style="list-style-type: none"> Baginen bagara: emakume artistak Women are beautiful. Lola Garrido Emakumeen astea Intxaurrendoko eta Altzako Kultur Etxeetan Emakume zientzialarien argitan Emakume aitzindariak Gure ahotsak emanaldia VEAn 	<ul style="list-style-type: none"> Donostia Kultura 	
	<ul style="list-style-type: none"> "Apuesta por la Igualdad" topaketa (M8) 	<ul style="list-style-type: none"> Sustapena 	
	<ul style="list-style-type: none"> Lilatoia babestea. Sare sozialetan nazioarteko egunetan jarduerak egitea: Emakumeak zientzian, Martxoak 8, LGTBI fobiaren kontrako nazioarteko eguna, LGTBI pertsonen eskubideen nazioarteko eguna, Azaroak 25. 	<ul style="list-style-type: none"> Turismo 	
	<ul style="list-style-type: none"> Cristina Brunettiren bizitzari buruzko argitalpena. 	<ul style="list-style-type: none"> Kristina Enea 	

EMAKUMEEN AHALDUNTZEA: TXERTATUTAKO NEURRIAK

NEURRIA	DESKRIBAPENA	PARTE HARTU DUTENAK	ADIERAZLEAK
2. Diru-laguntzen kudeaketa	<ul style="list-style-type: none"> Irabazi asmorik gabeko erakundeentzat dirulaguntzen deialdia atera da. 	<ul style="list-style-type: none"> Berdintasuna 	<ul style="list-style-type: none"> 35 elkartek jaso dute
3. Emakumeen Etxeko eguneroko kudeaketa	<ul style="list-style-type: none"> Emakumeen Etxean eskaintzen diren zerbitzu, ahalduntze talde, tailer eta ekintzak garatzeko lana egin da. 	<ul style="list-style-type: none"> Berdintasuna Kultur Aniztasuna 	<ul style="list-style-type: none"> 35 elkargune eta zerbitzu aktibo 1.957 emakumek hartzen dute parte topagune eta zerbitzuetan
6. Donostiako Berdintasunaren aldeko Emakumeen Kontseilua dinamizatzea.	<ul style="list-style-type: none"> Berdintasun kontseilua bi-hiru hilean behin biltzen da, bertan Donostiako Emakume Elkartek, talde feministak, sindikatuak eta alderdi politikoak daude ordezkatura, udalaren berdintasun politiken jarraipena egiten da eta hobekuntzak edo lanketarako gaiak proposatzen dira. Gai esanguratsuekiko Kontseiluaren izenean Adierazpenak onartzen dira. 	<ul style="list-style-type: none"> Berdintasuna 	<ul style="list-style-type: none"> 4 bilera 4 adierazpen onartu dira.

ESKU-HARTZE ARDATZA: INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK

6. PROIEKTU-EMAITZA: ERABATEKO PREBENTZIOA

Proiektu honek 11 neurri jasotzen ditu, hiru azpiproiektutan sailkatuta. 2022rako aurreikusita zegoen 3 neurri hiltzea eta **2 jorratu dira (%67)**.

JARRAIPENA	AUTODEFENTSA FEMINISTA	ADINEKO EMAKUMEAK	DETEKZIO GOIZTIARRA
AURREIKUSIA ETA JORRATUA	6.1. Autodefentsa feministako tailerrak zabaltzea denboran eta espazioan.		6.5. Indarkeria arrisku egoerak identifikatzea.
AURREIKUSIA ETA JORRATU GABEA	6.2. Indarkeria saihesteko pack bat garatzea ikastetxeentzat: autodefentsa nesKentzat eta maskulinitateak mutilentzat.		
2022RAKO PLANIFIKATU GABEA	6.3. Prestatzaileen prestakuntza antolatzea, talde autonomoak sortzeko.(AN)	6.4. Adineko emakumeentzako dauden programetan sentsibilizazio espazioak sortzea: informazio guneak, kafeak... (AN)	

Taula honetan jorrotutako neurri bakoitzerako garatutako ekintzak eta jarraipen-adierazle nagusiak jasotzen dira.

JORROTUTAKO NEURRIAK	JORROTUTAKO EKINTZAK/DESKRIBAPENA	PARTE HARTU DUTENAK	ADIERAZLEAK
6.1. Autodefentsa feministako tailerrak zabaltzea denboran eta espazioan.	<ul style="list-style-type: none"> Urtean zehar sistematikoki egiten diren saioak euskaraz eta gazteleraz, martxoan, ekaina eta azaroan. Beste saio espezifikoak: Gaztelekuetan gazteei zuzendutakoak eta emakume nagusiei zuzendutakoak Plus 55 programaren baitan. 	<ul style="list-style-type: none"> Berdintasuna 	<ul style="list-style-type: none"> 8 tailer 105 emakumek hartu dute parte
6.5. Indarkeria arrisku egoerak identifikatzea.	<ul style="list-style-type: none"> Zaurgarritasun egoera handiagoan dauden emakumeekin lanketa berezia: Segi ezan proiektua, igeriketa ikastaroa, Abegi etxeko ikastaroak, emakumea surflariarekin elkarlana, kartzelako emakume presoekin lanketa. 	<ul style="list-style-type: none"> Berdintasuna 	<ul style="list-style-type: none"> 4 ekintza jarri dira martxan
	<ul style="list-style-type: none"> Indarkeria matxista nerabezaroan VI. jardunaldia Kontadores Eszena Satiro ikuskizuna + tertulia Belarri Bero proiektzioa + solasaldia (Zeharkablea elkarte) 	<ul style="list-style-type: none"> Gazteria 	<ul style="list-style-type: none"> Jardunaldian: 94 emakume eta 26 gizonen parte hartu zuten 3 ekintza jarri dira martxan
	<ul style="list-style-type: none"> Sexu heziketa saioak LH 5/6 LGTBfobia DBH3-4 Lauaizeta Ondorioak DBH3-4 Lauaizeta LGTB fobia lan ildoan kanpaina: Emendakina (ikastetxetan geletan lansaioak) 	<ul style="list-style-type: none"> Hezkuntza 	
	<ul style="list-style-type: none"> Haur eta nerabeak indarkeriaren aurrean babesteko protokoloa (8/2021tik eratorritako betebeharra) 	<ul style="list-style-type: none"> Donostia Kirola 	
	<ul style="list-style-type: none"> Mahai Ingurua: Zahartzearen Erronkak El Salvadorren eta Euskadin Mahai Ingurua: Emakumea eta adinekoa izatea, feminismitik egindako hausnarketak “Memoria Eraikiz” Ikuskizuna 	<ul style="list-style-type: none"> Lankidetzeta 	<ul style="list-style-type: none"> Onuradunak: 132 emakume eta 80 gizon 28 emakumeren bizitza-istorioak

7. PROIEKTU-EMAITZA: ERREPARAZIO INTEGRALA

Hau da, adierazi den bezala, 2020ko eta 2021eko jarraipena egitean **atzeratzea erabaki den proiektuetako bat**, baliabide ekonomiko eta pertsonalen egoera kontuan hartuta. Hala ere, 7.4., 7.7. eta 7.10 neurriekin lotuta dagoen ekintzak garatu dira.

JARRAIPENA	ERREPARAZIOA DEFINITZEA	ESKU-HARTZE PROZESUA BERRIKUSTEA, ERREPARAZIOAREN IKUSPEGITIK	ERREPARAZIO SINBOLIKOA
2022RAKO PLANIFIKATU GABEA BAINA JORRATUA		7.4. Emakumeentzako harrera-baliabide espezifikoak eta seguruak eskaintzea. (AN)	7.7. Ahalduentze fisikoko programak eskaintzea. (AN) 7.10. Jaietan mugimenduen sozialen, elkarten, udalaren eta bestelako instituzio batzuen artean informazioa partekatze eta esku-hartzeak kudeatzeko krisi mahai bat sortzea. (AN)
2022RAKO PLANIFIKATU GABEA	7.1. Barne hausnarketa egitea erreparazioari buruz. (AN)	7.2. Emakumeen Etxean egiten dena ikusaraztea, eredu gisa balio dezan. (AN) 7.3. Indarkeria matxistaren kontrako udalaren erantzukizuna eta ekimenak erreparazioaren ikuspuntutik berrikustea. (AN)	7.5. Espazio publikoetan erreparazioa egitea. (AN) 7.6. Indarkeriari aurre egin dioten emakumeak indarkeria matxistaren aurkako udal politikan eragile aktiboak izatea. (AN) 7.8. Adierazpen eta harreman publikoetarako protokoloa osatzea eta aplikatzea. (AN) 7.9. Klean egiten diren gaitzespen adierazpenak Berdintasunaren aldeko Donostiako Emakumeen Kontseiluarekin eta Mugimendu Feministarekin koordinatzea. (AN)

Taula honetan jorratutako neurri bakoitzerako garatutako ekintzak eta jarraipen-adierazle nagusiak jasotzen dira.

JORRATUTAKO NEURRIAK	JORRATUTAKO EKINTZAK/DESKRIBAPENA	PARTE HARTU DUTENAK	ADIERAZLEAK
7.4. Emakumeentzako harrera-baliabide espezifikoak eta seguruak eskaintzea.	<ul style="list-style-type: none"> Hainbat tailer egin dira: Batukada tailerra; Sukaldaritza tailerra Serigrafia tailerra, Murala egiteko tailerra. 	<ul style="list-style-type: none"> Gizartekintza 	<ul style="list-style-type: none"> 4 tailer
7.7. Ahalduntze fisikoko programak eskaintzea.	<ul style="list-style-type: none"> Segi ezan programa garatu: ariketa fisiko bitartez jabekuntza, indarkeria matxista aurre egiten duten emakumeentzat. 	<ul style="list-style-type: none"> Berdintasuna 	<ul style="list-style-type: none"> 35 emakumek parte hartu dute
7.10. Jaietan mugimenduen sozialen, elkarteen, udalaren eta bestelako instituzio batzuen artean informazioa partekatzeko eta esku-hartzeak kudeatzeko krisi mahai bat sortzea.	<ul style="list-style-type: none"> Koordinazio mahai tekniko bat osatu da. 	<ul style="list-style-type: none"> Berdintasuna Donostia Kultura_Festak 	<ul style="list-style-type: none"> Lantalde 1 (Aste Nagusian)

INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK: TXERTATUTAKO NEURRIAK

NEURRIA	DESKRIBAPENA	PARTE HARTU DUTENAK	ADIERAZLEAK
1. Indarkeriaren kontrako kanpainak antolatzea	<ul style="list-style-type: none"> Beldur Barik programa 	<ul style="list-style-type: none"> Gazteria Lankidetzaz Berdintasuna 	<ul style="list-style-type: none"> Beldur Barik: 45 neska eta 20 mutil
	<ul style="list-style-type: none"> Erakusketa “Emakumeen aurkako indarkeria nazioarteko gatazketan” – Gervasio Sánchez. Euskal Fondoarekin elkarlanean <ul style="list-style-type: none"> Bisita gidatuak Erakusketa “Baztertuak”: Adineko emakumeek El Salvadorren bizi duten abandonua dokumentatzen duten 15 erretratu <ul style="list-style-type: none"> Bisita gidatuak 6 3 Performance On Do Ko +Baztertuak mahai ingurua Hitzaldia Deustuko ikasleekin: “Baztertuak” 	<ul style="list-style-type: none"> Lankidetzaz 	<ul style="list-style-type: none"> 6 Bisita Gidatu Gervasio Sánchezekin. 6 Bisita gidatu “Baztertuak” Onuradunak: 5.490 emakume eta 171 gizon
	<ul style="list-style-type: none"> Festako kanpaina, sexu eraso eta eraso sexisten aurkako kanpaina 	<ul style="list-style-type: none"> Berdintasuna 	<ul style="list-style-type: none"> Eragina izan du 100.000 pertsonengan
2. Esku-hartze prozesuaren etengabeko hobekuntza	<ul style="list-style-type: none"> Elkarteei zuzendutako <<Indarkeria matxisten biktima-bizirauleei harrera eta akonpainamendua egiteko>> gida egin da eta publikatu. 	<ul style="list-style-type: none"> Gizartekintza 	<ul style="list-style-type: none"> 2 bilera
3. Erakunde arteko protokoloaren jarraipena. Mahaia tekniko eta politikoa	<ul style="list-style-type: none"> Protokoloa eguneratzeko prozesu bat abian jarri, abokatu aholkularitza baten laguntzarekin. 	<ul style="list-style-type: none"> Gizartekintza Berdintasuna 	<ul style="list-style-type: none"> 6 lansazio

INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK: TXERTATUTAKO NEURRIAK

NEURRIA	DESKRIBAPENA	PARTE HARTU DUTENAK	ADIERAZLEAK
4. Indarkeria matxistaren kontrako prestakuntza Udal Formazio Planean	<ul style="list-style-type: none"> Gizartekintzako erabiltzaileekin tailerrak. Formakuntzan landutako edukiak: <ul style="list-style-type: none"> Genero rolak eta estereotipoak Feminitatea eta maskulinitate normatiboen ondorioak Indarkeria matxistaren kausak, ezaugarriak eta ondorioak Jabekuntza emakumeekin Deseraikitzea gizonekin Matxismo eta arrazakeriaren arteko diskriminazioekin 	<ul style="list-style-type: none"> Gizartekintza 	<ul style="list-style-type: none"> 12 saio. 6 saio gizonetzkoekin eta 6 saio emakumezkoekin 30 emakume eta 36 gizonen parte hartu dute
	<ul style="list-style-type: none"> Erdi eta goi mailako heziketa zikloetako gizonetzkoekin, beraien postuetatik indarkeria matxistak identifikatzeko sentsibilizazio formakuntza. Udaltzainetako atestatueta udaltzainekin harrera eta atestatua hobetzeko formakuntza. Udaltzainetako indarkeria unitatearekin espezializaziorako formakuntza. 	<ul style="list-style-type: none"> Berdintasuna 	<ul style="list-style-type: none"> 3 ikastaro 6 emakume eta 26 gizonen parte hartu dute
5. Puntu Kritikoak	<ul style="list-style-type: none"> Puntu kritikoen lantaldeko bilerak Puntu kritikoak hobetu: Soldadu plaza hobetzea Lanketa bat egin da Miserikordia Kalea hobetzeko baina ez da gauzatu Gazteei zuzendutako parte-hartze proiektua aurrera eraman 	<ul style="list-style-type: none"> Mugikortasuna Proiektu eta obrak Mantenimendua Partaidetza 	<ul style="list-style-type: none"> 9 bilera Eskuhartze 1

ESKU-HARTZE ARDATZA: EKONOMIAK ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEKO

8. PROIEKTU-EMAITZA: KALITATEZKO ZAINTZAK ETA ENPLEGUAK

Proiektu honek 8 neurri jasotzen ditu, hiru azpiproiektutan sailkatuta. 2020rako eta 2021erako aurreikusita zegoen 3 neurriri heltzea eta **3ak jorratu dira (%100)**.

JARRAIPENA	ZAINTZEN PLANA	TALENTU EZKUTUA AZALERATU	BERDINTASUNERAKO PLANAK ETA SOLDATA ARRAKALA
AURREIKUSIA ETA JORRATUA		<p>8.3. Tituluen eta esperientzien homologazioa, CV-ak egitea eta lanaren bilaketa erraztea.</p> <p>8.4. Egindako ikasketen ibilbide profesionalari berriro heltzeko proiektua martxan jartzea.</p>	8.6. Udal enpresek berdintasunerako planak garatzea.
2022RAKO PLANIFIKATU GABEA	<p>8.1. Zaintzen Talde Motorra sendotzea. (AN)</p> <p>8.2. Zaintzari buruzko hausnarketa bultzatzea. (AN)</p>	8.5. Belaunaldien arteko proiektua martxan jartzea eguneroko bizitzarekin lotutako talentua azaleratzeko. (AN)	<p>8.7. Udalak eta udal enpresek soldata arrakalari ekitea. (AN)</p> <p>8.8. Hiriko soldata-arrakalaren diagnostikoa egitea kategoria ezberdinak gurutzatuz. (AN)</p>

Taula honetan jorratutako neurri bakoitzerako garatutako ekintzak eta jarraipen-adierazle nagusiak jasotzen dira.

JORRATUTAKO NEURRIAK	JORRATUTAKO EKINTZAK/DESKRIBAPENA	PARTE HARTU DUTENAK	ADIERAZLEAK
8.2. Zaintzari buruzko hausnarketa bultzatzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Agroekologiaren eta feminismoaren arteko harremanaz hausnartzeko jardunaldi bat. 	<ul style="list-style-type: none"> • Kristina Enea 	<ul style="list-style-type: none"> • 19 emakumek eta gizon batek parte hartu dute
8.3. Tituluen eta esperientzien homologazioa, CV-ak egitea eta lanaren bilaketa erraztea.	<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeen Etxean hurrengo zerbitzua eskaintzen da: “Iguálate”, atzerrian egindako ikasketen tituluak homologatzeko eta balioztatze aholkularitza eta laguntza. 	<ul style="list-style-type: none"> • Berdintasuna 	<ul style="list-style-type: none"> • 398 emakume eta 13 pertsona ez bitarrek jaso dute aholkua tituluak homologatzeko.
8.6. Udal enpresek berdintasunerako planak garatzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Musika eta Dantza eskolak bere Berdintasunerako I. Plana garatu du. 	<ul style="list-style-type: none"> • Musika eta Dantza Eskola 	
	<ul style="list-style-type: none"> • Sustapenak Emakumeen eta gizonen egoerari buruzko diagnostikoa eta Berdintasunerako I. Plana garatu du. • Berdintasun-planaren ezarpenean, froga pilotu bat jarri dute abian, pertsona batzuek urrutitik lan egin ahal izateko eta garatzen duten jardueraren esparruan haren bideragarritasuna ikusteko. 	<ul style="list-style-type: none"> • Sustapena 	
	<ul style="list-style-type: none"> • DonostiaTurismok bere berdintasun planaren ezarpenean aritu da. Garatutako jardueren artean: <ul style="list-style-type: none"> ○ Berdintasuna webean txertatu da eta hizkuntza eta irudien erabiliera inklusiboa bultzatu da. ○ Araudian telelana egiteko aukera sartu da: epe zehatz baterako izango da eta arrazoi berezi batengatik. ○ Hautaketak prozesuak egiteko plegu batzuk garatu dira . 	<ul style="list-style-type: none"> • Turismoa 	
	<ul style="list-style-type: none"> • Dbusek bere Berdintasunerako Plana garatzen jarraitu du, eta abordatze-maila % 70etik gorakoa izan da. 	<ul style="list-style-type: none"> • Dbus 	
	<ul style="list-style-type: none"> • Donostia Kultura bere berdintasun planaren ezarpenean aritu da. Landatuko neurriak: <ul style="list-style-type: none"> ○ Berdintasunerako egiturak indartu ○ Berdintasun-politiken komunikazioa indartu ○ Berdintasunari buruzko prestakuntza langileentzat ○ DK Testa sortu 	<ul style="list-style-type: none"> • Donostia Kultura 	

EKONOMIAK ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEKO: TXERTATUTAKO NEURRIAK

NEURRIA	DESKRIBAPENA	PARTE HARTU DUTENAK	ADIERAZLEAK
1. Etxeko Langileei aholkularitza zerbitzua ematea	<ul style="list-style-type: none">Emakumeen Etxean eskaintzen den zerbitzua: eskubideak eta betebeharrak, soldata, kontratu mota, opor, egun eta ordu libre, kotizazio, baimen, kaleratzeen... inguruko aholkularitza.	<ul style="list-style-type: none">Berdintasuna	<ul style="list-style-type: none">124 emakume artatu dira, telefonoz eta aurrez aurre. Horietatik 40 kanpokoan erregimenean zeuden, 60 barnekoan erregimenean eta 24 enplegatzaileak ziren.

Guztira, hauek dira esku-hartze ardatz eta proiektu bakoitzaren abordatze-tasak:

ESKU-HARTZE ARDATZA	PROIEKTU-EMAITZA/TXERTATUTAKO NEURRIAK	Jorratutako/ Aurreikusitako NEURRIAK	ABORDATZE TASA
GOBERNU ONA	AURREKONTU ETA KUDEAKETA PLAN FEMINISTAK	5/7	%71
	IKUSPEGI INTERSEKZIONALA	1/0	--
	PLANAREN IRAUNKORTASUNA	2/2	%100
	TXERTATUTAKO NEURRIAK	11/13	%85
EMAKUMEEN AHALDUNTZEA	EMAKUMEEN ETXE HANDI, ANITZ ETA KOORDINATUAGOA	3/3	%100
	DONOSTIA, FEMINISMOAREN ALDEKO HIRIA	3/1	%300
	TXERTATUTAKO NEURRIAK	5/7	%71
INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK	ERABATEKO PREBENTZIOA	2/3	%67
	ERREPARAZIO INTEGRALA	3/0	--
	TXERTATUTAKO NEURRIAK	5/6	%83
EKONOMIAK ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEKO	KALITATEZKO ZAINTZAK ETA ENPLEGUAK	3/3	%100
	TXERTATUTAKO NEURRIAK	2/2	%100

Azpimarratu behar da **ardatz guztietan, abordatze-maila %85etik gorakoa** izan dela. Kalkulu hau egiteko, planifikatutako neurriak hartu dira erreferentziatzat, planaren dimentsioa baliabide ekonomiko eta pertsonalen egungo baldintzetara egokitu ondoren. Garatutako neurrien kopurua erreferentziatzat hartuta, gehien jorratutako ardatzak *Gobernu Ona* (19) eta *Emakumeen Ahalduntzea* (11) dira. Abordatze-tasa irizpide gisa hartzen bada, gehien jorratutako ardatzak *Indarkeria Matxistarik Gabeko bizitzak* (%111,1), *Emakumeen Ahalduntzea* (%100) eta *Ekonomiak eta Gizarte antolakuntza eraldatzea eskubideak bermatzeko* (%100) dira.

Txertatuko neurrien garrantzia ikusi da baita ere. Berdintasuna bultzatzeko funtsezko neurri horiek, udalaren funtzionamenduan sistematizatuak daudenak, unitatearen eta gainerako sail eta enpresen denboraren eta baliabideen zati handi bat eskatzen dute. Proiektu eta neurri berriei ekiteko, aparteko baliabideak behar dira, eta hori, aurretik jaso den bezala, ez da 2022ko errealitatea izan, Unitateak izan dituen baliabideak txikiagoak izan baitira.

GAKOAK, ERAGILEAK, BALIABIDEAK, BEHARRAK

2022ko berdintasun arloan egin den lanetik, sailek nabarmendu dute gakoak kasu askotan **tresnak** dira. Hauen artean, Udal enpresen kasuetan, Berdintasunerako plan propioak nabarmendu dira. Aipatutako beste tresna batzuk prestakuntza, klausulak edo lan taldeak dira. Beste kasu batzuetan, gakoek **garatu dituzten proiektu edo ekintzei egiten diete erreferentzia**. Adibidez, genero ikuspegia txertatzeko egindako gida bat, LGTBIQ gaiak lantzea, ahalduntzerako erakusketak, saio edo guneak...

Baliabide aipagarrienak **barne langileak dira**, eta, kasu batzuetan, kanpoko laguntza teknikoa, Berdintasunerako Unitatea, lantaldeak edo programaren batzuetan lankidetzan aritzen diren gizarte-eragileak.

Garatutako neurriekin emaitza edo eragin handiagoa izateko, baliabide gehiago behar direla azpimarratu da, bai baliabide ekonomikoak eta baita langileek parte hartzeko baldintzak eta denbora izatea ere. Beste baliabide batzuk ere faltan somatu dira: sailen arteko lankidetzak, behar adinako ezagutza eta gaikuntza arlo honetan, eta berdintasuna tresna estrategikoetan eta erabakiguneetan egotea.

3. GAKOAK-MUGARRIAK: ARRISKUAK ETA AUKERAK

- JARRAIPEN-TRESNA

2020/21 jarraipena egiten Midenet tresna IV. Planaren sistematizazio eta jarraipen beharretara egokitzen ez zela ikusi zen. Beraz, baliabide pertsonal gehiago eta tresna informatikoa Planaren jarraipenera egokitzen ez den bitartean, tresna hau ez erabiltzea erabaki zen. Hortaz, Berdintasun Unitatearen eta beste sailen informazioa excelen bitartez jaso da, urtea ixterakoan. Hurrengo urteetarako, beharrezkoa ikusi da neurriak garatu ahala informazioa jasotzea, urte osoan zehar (adibidez, Berdintasun Unitatearen kasuan hilero, eta gainerakoen kasuan hiru hilean behin).

- PLANAREN IRAUNKORTASUNA

laz bezala, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planaren garapenak baliabideak areagotzea eskatzen du, proiektu berriak eta berdintasun-politika berriak bultzatu ahal izateko, eta aldi berean, aurreko plangintza-zikloetan hasitakoak indartu, sakondu eta sendotzeko.

Honi lotuta, plangintza eskura dauden baliabideetara egokitzea gomendatzen da. Berdintasunerako Unitatea indartu, aholkularitza juridikoa eta komunikaziokoa bezalako beste baliabide batzuk izan eta berdintasunera bideratutako aurrekontua handitzen den heinean, proiektu berriei ekin ahal izango zaie.

- UDAL ENPRESEN BERDINTASUNERAKO PLANAK

Udal enpresen berdintasunerako plan propio hauek gaketzat jotzen dira, enpresa batzuen inplikazio eta esku-hartze handiagoa erakarri dutelako ikusten baita. Maila ezberdinetako planifikazio-tresnak koordinatzea eta artikulatzea da orain erronka.